

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Webgune bat da gure funtsezko baliabidea. Hau gure diruarekin erosiko dugu eta empresa baten bidez webgunea gure beharretara moldatuko dugu. Gure plataformarako ere telefono zenbaki baten eta helbide elektroniko baten beharra izango dugu harremanak sortu ahal izateko. Teknikari batzuk ere beharko ditugu webgunearen mantenimentua egiteko edo norbait hackeatzen saitzen baldin bada segurtasuna bermatzeko.

Taldekide bakoitzak ekarpen desberdinak egingo ditu taldera. Alde batetik, taldekide batek bere hizlari abileziak erabiliko ditu Euskaltzaindiari eta EHUri gure proiektua azaltzeko. Beste taldeki bat webgunean berifikatzaile lanean arituko da, iruzurrak ekiditeko. Hurrengo taldekideak bere matematiko abileziak erabiliko ditu enpresaren kontuak eramateko. Azkenengo taldekidea jendarteko erlazioetaz arduratuko da, erlazio sozialetan dituen trebetasunak erabiliz.

Finantzeri dagokionez, bankuan 5.000€ko mailegua eskatuko dugu hasierako gastuei aurre egiteko. Behin hasierako gastu hauek igaro ostean, dirua poliki-poliki itzuliko dugu. Maileguaz gain, taldekideen aurrezkiak ere erabiliko ditugu.